

ataria

Gustuko lekuan aldaparik ez

Kultura

*'BA edo munduen arteko
oreka', galdutako ezagutzak
berreskuratzeko*

2019-09-20

1.112.zenbakia

107.6 fm.

www.ataria.eus



Hemen zure iragarkia joan daiteke

publi@ataria.eus
661 678 818

Tolosaldeko ataria^{ak} MARKETIN ETA SUSTAPEN ARDURADUNA BEHAR DU

ATARIA markaren sustapena landuko duen eta kaptazio eta fidelizazio estrategia eta ekimenak diseinatu eta gauzatu dituen pertsona baten bila gabilta.

BALDINTZAK:

- Marketin, publizitate edo administrazio arloko ikasketak izatea.
- Marketin ezagutza espezifikoak edukitzea [sare sozialak, email marketina, analitika eta neurketa].
- Komunikazio, marketin eta sustapen lanetan izandako eskarmentua baloratu da.
- Diseinu eta bideogintza alorreko ezagutzak baloratu dira.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako gaitasuna eta ekimena.

- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ezagutzea.
- Autoa eta gidabaimena.

ESKIAINTZEN DA:

- Lanaldi osoko kontratu iraunkorra.
- Lantokia Tolosan.

Erreferentzia: SUSTAPEN-2019

Interesa duenak **Curriculum Vitae zehatza** bidali Tolosaldeko Atariara [San Esteban, 20. 20400 Tolosa] edo tkt@ataria.eus posta elektroniko-ra, erreferentzia zehaztuz. **2019ko irailaren 25a baino lehen.**



4,8tik 7,2ra bitarteko kontsumo mistoa (L/100km). CO2 isurketak (g/km) 127tik 168ra.

XC40 VOLVO
BERRIA 27.200 EUROTIK *



Gidatu ezazu zure bizimodua

Ikus ezazu autosuecia.es webgunean

Auto Suecia | Jauregui auzoa, 76, Hernani (Gipuzkoa) | **943 33 11 31**

#VolvoXC60



* Volvo XC40 T3 Bate Premium Edition esklusio auto abiadura aldagailua; peritinsulazko salneurria (Extremaduran izan edo) eta Baleriar Uharteetan 27.200 eurotik (BEZ, garrasia, fabrikatzailearen elkarpena, eta Kontzesionariaren Sareak eta matxulatze zerga barne). Volvo Car Financial Services[®] markapen finantzatutako unitateen salneurria (Volvo Car Group) Banco Cetelam S.A.U. A-78650348-ren bidez, gutxienez 21.000 euro finantzatzeko. Gutoieneko iraupena, 48 hilabete. Gutoieneko egonaldia, 36 hilabete. S.A.U. Banco Cetelam-en onarpenari lotuta. Eskaintza 2019ko irailaren 30a baino lehen salidutako pertsona fisikoek bakarrik eragiten dute. Ikusten den modeloa ez da eskaintzako bera.

ARGAIA GOENA
baserrian txekorra hazi
dugu eta prest izango
dugu urriaren 11rako!

5 kiloko lotea

Txuleta
Xerrak
Kostilla
Haragi xehatua
edo hanburgesa
Gixatzekoa
Egostekoa

60€



3 kiloko lotea

Txuleta
Xerrak
Haragi xehatua
edo hanburgesa
Gixatzekoa
Egostekoa

45€

**Loterik nahi ez
duenarentzat**

Hanburgesak **15€/kg**

Haragi xehatua **9,5€/kg**

Eskari minimoa 2'5kg



*Edozein aldaketa egin daiteke haragi xehatua edo hanburgesak in egiten bada.



agarmendia87@hotmail.com



650 662 035



Amezketza

Zakarrontzitik

kastolan aspertu egiten zen. Aspertu besterik ez, azkenerako. Ez zuen joan nahi, goizero gogorazten zien etxekoei. 9 urterekin.

Ez zioten interesik pizten 4. mailako edukiek, eta horietan sakondu nahi zuenean irakasleak moztu egiten zion segidan, ez zekielako nola kudeatu egoera hori.

5. mailakoen gelatik lanak lapurtzen hasi zen, zakarrontzitik soberan ateratako kopiak hartu eta bere zakuan gordetzen zituen klandestinoki, etxean bere jakinmina asetu nahian.

Lagunekin ere liskarrak izaten hasi zen, bere amorrua azaletik dariola zebilen. Inork ez zuela uler-



AINHOA ELIZONDO
KALE KANTOITIK
ATARIA IRRATIA 107,6 FM

tzen sentitzen zuen, bakardadea eta noraeza.

Behinola, gaitasun handiko umei buruzko elkarrizketa bat irakurri zuen TOLOSALDEKO ATARIAN. Begiek diz-diz egin, eta lasterka hasi zen batera eta bestera, munduko deskubrimendu handiena egin balu bezala. Gau hartan denek negar egin zuten etxean.

Zein talentu beharra dugun herri honetan, eguneroko erronkei kalitatez aurre egin ahal izateko, negozio eta botere gosetik urrun. Eta zenbat

talentu alferrik galtzen dugun, sinpleki, deskubritzen ahalegintzen ez garelako.

Behinola, gaitasun handiko umei buruzko elkarrizketa bat irakurri zuen TOLOSALDEKO ATARIAN. Begiek diz-diz egin, eta lasterka hasi zen batera eta bestera, munduko deskubrimendu handiena egin balu bezala. Gau hartan denek negar egin zuten etxean.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojasre

bai

berria eta
bikaina

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Irene Iturria



Gaur jaitsiko da herensugea Iruran, San Migel jaiak iragarritz; 18:30ean botako dute txupinazoa. ASIER IMAZ

Hasiera, zaintzaileen esku

Besteak beste, Marian Iturbe eta Mari Paz Aizpurua zaintzaileek botako dute gaur, Irurako San Migel jaien txupinazoa

Asier Imaz

Zaintzaileen lana aitortu nahi izan dute Iruran. San Migel jaiak hasiko dituzte gaur, eta txupinazoa botatzeko ardura eta aukera eman nahi izan diete. Marian Iturbe eta Mari Paz Aizpurua zaintzaileek emango diete hasiera jaiei, beste hainbat zaintzaileekin batera. Gorka Murua alkateak euren lanari balioa eman zion jaien aurkezpen ekitaldian, eta gaurko suzria botatzeko kolektibo egokiena dela azpimarratu.

Bueltan, Iturbek eta Aizpuruak, zaintzaileen izenean esker oneko hitzak izan zituzten, txupinazoa botatzeko aukera emateagatik eta euren lanaz gogoratzeagatik.

Bi asteburu

Bi asteburutan izango dira Irurako jaiak eta, berrikuntzen artean, irailaren 27ko film laburren lehiaketa aipatu zuen Muruak.

Horrekin batera, hainbat tabernatan musika emanaldiak izango direla nabarmendu zuen, eta jaien amaieran, herensugea erretzearekin batera, azken topa edo txotxa egingo dutela aurtengoan.

Film laburren lehiaketa

Jai batzordeko gazte asanbladako ki-deek film laburren lehiaketaren zergatia azaldu zuten. Egun berean Play Back-a izango dela azaldu zuten; baina, egitasmo horren beherakadaren ondorioz, jendeari mikrofonoaren aurrean jartzea kosta egiten zaionez, osagarri baten beharra ikusi zuten.

Azkenik, eraso matxisten inguruko protokoloa gogora ekarri zuten. Egitarauaren liburuxkan, azken orrian,

pausoz pauso agertzen da eraso matxista baten aurrean egin beharrekoa. Besteak beste, berehalako laguntzarako telefonoak agertzen dira bertan: 112 (SOS Deiak); Gipuzkoako larrialdiak: 943 22 44 11; Eusko Jaurlaritzaren 24 orduko zerbitzua (900 84 01 11) eta, berehalako laguntzarik behar ez bada, Irurako Udalaren telefonoa (943 69 13 33).

Etxera itzultzeko hitzorduak

Irurako EH Bilduk jakinarazi duenez, Puntu More bat jarriko dute txosnen ondoan. Puntu Morea ikusgarri egongo da festetan, eta etxerako bidea segurtasunez egiteko egitasmoa da. Etxera bueltatzeko taldeak osatuko dituzte bertatik, bidea konpainian egiteko.

Bertaratu eta taldea osatuta dagoe-nean, elkarrekin abiatzea izango da helburua. 02:00etan, 04:00etan eta 06:00etan jarri dituzte hitzorduak, hila-ren 20an, 21ean, 27an eta 28an.

EGITARAUA

GAUR, IRAILAK 20

18:30. Agurra, txupinazoa eta herensugearen jaitsiera.

19:00. Kalejira buruhandiekin, erraldoiekin eta Loatzo musika eskolako musikariekin.

21:00. Barrikotea San Migel plazan.

Oharrik: jan-ontziak eta mahai-tresnak norberak eraman behar ditu, koadrilla bakoitzeko hiru kidek agertu behar dute, mahaiak era egokian jartzeko hutsunerik utzi gabe, eta afalostean mahaiak bildu behar dira. Eguraldi txarra balego frontoian izango da.

Ondoren, Erromeria.eus taldearen emanaldia, plazan.

BIHAR, IRAILAK 21

09:00. Gazte-festaren hasiera San Migel plazatik.

11:00-13:00 eta 15:30-18:30. Haur-parkea garbilekuko plazan.

13:00. Gazteen dantza-soka San Migel plazan.

14:00. Haurren bazkaria, plazan.

14:30. Gazteen bazkaria.

18:30. Poteo musikatua Elektropapo elektro-txarangarekin.

21:00. Gazteen afaria.

23:30. Governors eta Bad Sound taldeen kontzertuak.

ETZI, IRAILAK 22

11:00. Patata-tortilla lehiaketa San Migel plazan. Egunean bertan plazan izena ematen dutenek sua eraman beharko dute. Guztientzako sariak egongo dira. Tortillak egileek eta ikusleek dastatuko dituzte.

11:30-13:30. Herri kirolak haurrentzat Kulkiren eskutik.

16:00. Talde-jokoak frontoian DBHkoentzat.

19:00. Sagardo dastatzea San Migel plazan.

IRAILAK 27, OSTIRALA

11:00. Jokoak haurrentzat (HH eta LH) San Migel plazan. Ondoren, buruhandi txikiak.

17:30. Gora Kasete haur ikuskizuna plazan, Eidabe taldearen eskutik.

Eguraldi txarra balego trinketean izango da.



'Gora kasete' ikuskizuna. ATARIA

17:30. Patinete erakustaldia Skate parkean Muturreko Kirolak taldearekin. Eguraldi txarra balego frontoian izango da.

18:30. Kalejira San Migel plazatik buruhandi eta erraldoiekin, Loatzo Musika Eskolako txistulari eta trikitilariak lagunduta. Ondoren, txistor-jatea Share Elkartean.

22:30. Play Back jaialdia eta film laburren lehiaketako lanen emanaldia San Migel plazan. Ondoren, zuzeneko musika emanaldiak gazteen karpan, Ikastolako tabernan, Errekalde tabernan eta Enara tabernan.

IRAILAK 28, LARUNBATA

13:00. Herri bazkaria doazenez mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte plazan. Ondoren triki-potea.

14:00. Herri-bazkaria San Migel plazan: 14:00etan umeak eta 14:30ean helduak.

19:00. Nafarroako Joten emanaldia Oliteko

Escuela de Jotas taldearekin eta Irurako Eguzki Goxo abesbatzaren emanaldia plazan.

23:30. Gaueko dantzaldia Fan & Go taldearekin.

IRAILAK 29, IGANDEA

09:00. Diana txistulariekin.

11:00. Meza Nagusia. Ondoren, Irurako Lats dantza taldearen emanaldia. Jarraian, hamaiketako herrikoia San Migel plazan.

17:00. Lur-ikara kabareta plazan, Pantzart Teatrotan eskutik.



'Lur-ikara' kabareta. ATARIA

18:30. Bertso saioa elizan. Gai-jartzailea: Maddi Sarasola. Bertsolariak: Miren Amuriza, Beñat Iguaran, Amaia Agirre eta Aitor Mendiluze.

21:00. Herensugea erretzea plazan. Ondoren, azken-txotx Errekalde tabernan, jai-batzordean zozketa bidez aukeratua. Aurrerantzean lekua txandakatuko dute.

URRIAK 6, IGANDEA

12:00. Meza Nagusia.

14:00. Bazkaria trinketean jubilatuta eta pentsiodunentzat. Ondoren, musika dantzagarria Joxe Mendizabalen eskutik. Oharra: bazkarian parte hartzeko, izena eman behar da jubilatuen biltokian eta 12 euro ordaindu behar dira.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Idoia Murillo Iturrigoxo jatetxeko ateetan, amasar batek zizelkatutako egur lana atzean duela. I. SAIZAR

Mimoz goxatutako txokoa

06

Zortzi hilabetez itxita egon ondoren, irailaren 5ean zabaldu zituen ateak Amasako Iturrigoxo jatetxean

Irati Saizar Artola Amasa

Badaki zer den ostalaritzan jardutea Idoia Murillo billabonatarrak. Hemezortzi urte daramatza mundu horretan lanean, eta beste etapa berri bati eman dio hasiera: Amasako Iturrigoxo jatetxeko ateak zabaldu ditu, iraila hasieran. Ordutik, buru-belarri ari dira lanean.

Pasa den urteko abendutik itxita egon da Amasako plazan dagoen jatetxea. Abuztuaren 12an amaitu zen jatetxearen ustiaketa esleitzeko prozesua, eta Murillo izan da lehiaketa publikoa irabazi eta jatetxe-taberna ustiatzeko ardura hartu duena.

Aurretik zerbitzari lanak egiten ibilia zen Murillo, Iturrigoxo jatetxean bertan; ezagutzen zuen nolakoa zen tabernako martxa. «Zortzi hilabetez egon da itxita taberna, eta herritarrek irekitzeko gogoz zeuden», azaldu du. «Orain, eguneroko bezeroak mimoz goxatzen ditut».

Asteazken zehar eguneko menua ematen dute, eta asteburuetarako eskaintza zabalagoa dute: ogitartekoak, sandwichak, hanburgesak eta plater konbinatuak eskaintzen dituzte, alde batetik, eta asteburuko menua ere eskaintzen dute, bestetik.

Deskantsurako denbora asteartetan hartzen dute eta, gainerakoan, egunero dute irekitzeko ardura. Astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 21:00etara, zabalik izaten da. Asteburuetan, berriz, afalostera bitarte.

Bertakoaren alde

Produktuari garrantzi berezia eman nahi diote, «mimoz landu», hortik aterako platerak jendea liluratzeko: «Bertako produktuarekin egin nahi dugu lan, baserritarrek. Adibidez, momentu honetan eskuarteetan ditugun barazki guztiak Amasako eta Arratzain auzoko baserritarrenak dira». Baserritarrek daukatena eskaintzen diote, eta Murillok behar duena hartzen die.

Gertutasuna, bai afektiboa, baina baita fisikoa ere, zenbait garaitan ondo datorrela azaldu du: «Estualdiren bat izan dugunetan beti egon dira hor, eta

momentuan bertan ekarri izan didate behar dudana».

Sukaldeko suak pizten direnean, menurako bereziki, «plater tradizionalak» egiten dituztela azaldu du, momentuz. «Hasi, tradizionalarekin egin gara, baina aldatzen joateko intentzioa daukagu». Ogitarkeko eta hanburgesa aukeretan, «eskaintza bereziagoa» osatu dutela argitu du.

Hasi berri dira jatetxearen egunero-koarekin, eta martxa hartzen ari dira oraindik. Buruan, ordea, pentsatuta ditzute aurrera begirako planak; besteak beste, mokadu bereziren bat sortzearena: «Nahiko genuke plater berezi bat sortu eta jendeak esan dezala: hau jan nahi badut Amasara joan beharko dut».

Bestalde, «ikusuntu kultural» bat eman nahiko lioke zerbitzuari. Jatetxeari erantsita dagoen eraikina kultur etxea da, eta jantokiarekin komunikatu areto bat dago. «Eskumena dugu gela hori erabiltzeko, eta gu prest gaudela kontzertuak, antzerkiak eta ekitaldi kulturalak jarri eta erabilera bat emateko». Negu aldean, umeentzako eskulan tailerrak edo horrelako egitasmoak ere gustura hartuko lituzkeela dio.

Oinez, elkartasuna adieraziz

Larunbatean izango da Mendiz Mendi Etxera ibilaldi neurtua Lizartzan; egunean bertan izena eman daiteke

I. Saizar Artola

Bosgarren urtez jarraian antolatu dute, Lizartzan, Mendiz Mendi Etxera mendi ibilaldia. Larunbat goizean izango da eta, Nagore Esnaola antolatzaileak azaldu duenez, prest dute guztia: «Zer eguraldi egingo duen jakitea falta zaigu, baina, zorte pixka batekin, ona egitea espero dugu».

Lizartza inguruko mendiak ezagutzeaz gain, helburu jakin bat du mendi martxak: «Preso ditugu Garikoitz Etxeberria eta Aitor Agirrebarrena herritarrek, herritik ia 4.000 kilometrorra, eta haiekiko eta haien senideekiko elkartasunez egiten dugu mendi martxa». Azken martxa noiz izango zain dira antolatzaile eta senideak, «ederra izango litzateke hori, baina nik uste, oraindik jarraitu beharko dugula hau antolatzen», dio Esnaolak.

Aurten ere lau ibilbide egingo dituzte. Ibilbide luzeena 35 kilometrokoa izango da, 2.200 metroko desnibelarekin; ibilbide ertainak 18 kilometro izango ditu eta 1.100 metroko desnibela, eta, iaz gazteentzako lehen aldiz prestatutako ibilbidea, 10 kilometrokoa; azkenik, famili giroan egiteko 3 kilometroko ibilbidea prestatu dute.

Ibilbide luzekoak 07:00etan abiatu-



lazko mendi ibilaldiko irudia, eguraldi paregabean, inguruaz gozatzen. ATARIA

ko dira; ertainekoak 08:00etan; gazte-
txoak 09:30ean eta ibilbide motzeko-
ak 10:30ean.

Ibilbideetan barrena anoa gunek izango dira, jan-edanekin: «Fruta jarriko dugu, baita bizkotxo eta txokolatea ere; edatekoa ere izango da. Hala ere, beti gomendatzen dugu norberak jateko zerbait eramatea». Anoa gunehorietan, ibilaldian izena eman duten horiek txartela erakutsi beharko dute.

Ibilaldia neurtua denez, gomendio bat du Esnaolak parte hartzaileentzat: «Oinez egitea gomendatzen dugu, eta, norbaitek korrika egiteko asmoa badu, aurrez abisatzea gustatuko litzaziguke, kontrol guneetakoekin jakin dezaten».

Ibilbide amaieran, Lizartzako plazan, mendizale zein herritarrentzat arroza prestatuko dute, bere osagaiekin, eta haurrentzat makarroiak jarri-

ko dituzte. Azken urteetan ia 500 pertsona elkartu direla gogoan du Esnaolak «herri bazkari erraldoi» horretara. Aurten, gaztetxoentzat puzgarri eta ohe elastikoak jarriko dituzte, plazan bertan.

Martxa amaitu berritan, parte hartzaileen artean hainbat sari zozkatuko dituztela ere aurreratu du Esnaolak: «Orexako eta Lizartzako ostatuek eta Joxe Mari tabernak ematen dituzte sariak, eta Mahalako produktuak eta Lezaetako ogia ere zozkatzen ditugu. Baina, garrantzi bereziagoa duten sariak ere izaten ditugu: Gari eta Aitor presoek egindako zenbait eskulan». Bazkalostean, berriz, urdaiazpikoa eta gazta zozkatuko dituzte.

Ibilaldian parte hartu nahi duenak egunean bertan aukera izango du ize-
na emateko.

07

atarian jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €

bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Iñaki Zubeldia ikaztegiarrak lehen ipuina idatzi zuenetik 50 urte pasatu dira; orain, 'Zertara datoz martetarrak?' liburua argitaratu du. **ENERITZ MAIZ**

08

«NIRE OBSESIOA MARTETARREK IRITSI BEHAR ZUTEN ORDURAKO ZARAUZKO HONDARTZAN EGOTEA ZEN»

IÑAKI ZUBELDIA
IDAZLEA

50 urte bete dira Iñaki Zubeldia idazleak 'Euskaldun bat Marten' liburua idatzi zuenetik; trilogiaren azken liburua argitaratu berri du orain, 'Zertara datoz martetarrak?'

Eneritz Maiz Etxarri ikaztegieta

Iñaki Zubeldia idazle ikaztegiarrak *Zertara datoz martetarrak?* liburua argitaratu du. Trilogia bat osatu du, *Euskaldun bat Marten* eta *Martetarrak Zarautzen* liburuekin.

Lehen liburua idatzi zuenetik 50 urte pasatu dira. Erraz esaten da?

Aspaldiko kontuak dira. Orduan 24 urte nituen, eta Zarautzen irakasle egon eta gero izan zen. Oso oroimen politak utzi dizkit buruan. Liburu horrek asko eman dit, irakurleen aldetik eta gero, bestalde, idazle izateko nola

baiteko gogoa piztu zidan. Idazle beza-la, liburu hori, nolabait, nire bataioa izan zen. Nire aurrenekoa izan zen, eta Irun Saria eman zidaten. Garai hartan oso sari garrantzitsua zen, eta horrek bultzatu ninduen gehiago idaztera.

Pentsatua zenuen idazle izan nahi ote zenuen, edo saria izan zen zu idazle izateko pizgarria?

Bai, noski. Hori izan zen pizgarria. Ni irakasle normal bat nintzen, eta ez nuen sekula pentsatu «idazle izan behar dut». Suertea izan genuen eta, batez ere, beharra izan zen. Ikastoletako hasierako mundu hartan ez zegoen

ezer, ez irakurtzeko, ezta testu liburu-rik ere, ikasteko. Beharrak eraginda izan zen, eta inguruan tokatu zitzaian Joxe Antonio Ormazabal. Idazle bikaina, inspirazio iturri izaten zen askotan, eta oso lagunak ginen. Garai hartan elkarri asko bultza izan genion, eta handik hasi ginen idazten.

Ibilbide luzea izan du zure lehen liburuak eta, orain, trilogiaren azken liburua argitaratu duzu: 'Zertara datoz martetarrak?'

Imanol Agirre Garoa liburu dendakoa da, zaraustarra, eta nonbait berak umetan irakurri zuen *Euskaldun bat Marten* liburua. Bere burua identifikatua sentitzen zuen. Bera ere ibili zela martetarrekin Zarautzen, eta beti esaten zidan: «Hire liburu-rik onena hori dek, eta noiz idatzi behar dek martetarren bigarren partea?». Nik beti erantzuten nion aspaldiko kontuak zirela eta ez zegoela bigarren parterik. Egundatean, ordea, Zarauzko malekoian

paseatzen nenbilela, «laster 2019a» gogoratu nintzen. 50 urte martetarrak etorri zirela, beraz, idazteko motibo bakarra hori da: 50. urteurrena ospatu nahi dutela, eta martetar pila bat ekarri nahi dituztela Zarautzera.

10.000 bat martetar txiki, 500 bat espaziontzitan,... Baina, besterik gabe ezin zen izan. Bigarren liburu bat egitea pentsatu nuen, prestakuntzak egitera nola etortzen diren kontatuz, eta Zarauzko Udalarekin adosten dute. Eta gero dator hirugarrena.

**Hori da, 2015ean, 'Martetarrak Zarautzen' argitaratu zenuen. Harre-
ra ona izan du?**

Bai, asko gustatu zaie umeei, eta grazia egiten die.

**Azken liburuarekin istorioari
amaiera eman diozu. Gustura gera-
tuzara?**

Bai. Egia esan, idazleok gauza arraroak egiten ditugu, eta abuztuaren leian etorri behar zuten martetarrek, noski. Kanpoan nenbilen erosketak egiten, eta nire obsesioa 11:30erako, hau da, martetarrak iritsi behar zuten ordurako, Zarauzko hondartzan egotea zen. Banekien ez zirela etorriko, baina aurretik, urtebete lehenago, harremanetan jarri nintzen Azti-Tecnaliakoekin. Marea baxua zehazki noiz izango zen jakin nahi nuen, 500 espaziontziak Zarauzko hondartzan lurreratu ahal izateko. Txintxo-txintxo erantzun zidate, goizeko 11:20an izango zela. Ni terdiatarako iritsi nintzen, eta marea 200 metro jaitsita zegoen. Izugarri baxu zegoen.

**Guztiak sartzeko moduan izango
ziren, beraz.**

Bai, bai. Ondo asmatu zuten, eta martetar guztiak ondo sartzeko moduan izango ziren.

**Lehen liburua irakurri zutenek, bi-
garrena irakurri duten badakizu?**

Ez dut horrelako erreferentziarik, baina gaztetan irakurri zuten askok komentatu didate garai haietan liburuak beraiegan izan zuen eragina. Askori espaziontziek-eta inpaktua eragin zien. Eskoletara joaten naizenean anekdota bitxiak gertatzen zaizkit eta, esaterako, umeak liburu zahar-zaharrek in etortzen zaizkit, «ez dut erosi li-

**«Oso pozik joaten naiz
eskoletara, eta guretzat
hori oxigenoa da»**

**«Haurrei tabletek eta
mugikorrek irakurtzeko
gogoa eta denbora jaten
die. Gauza azkarragoetara
ohitu dira»**

burua, nire amak gordetzen zuen eta» esanez, eta polita da.

**Marte eta martetarrek erakartzen
dituzte haurrak?**

Bai, asko oraindik. Badakite Marten ez omen dagoela bizitzarik, eta zaila dela bizitzea, baina interneten Boris edo Boriska jartzen baduzu, Marteko umea ikusiko duzu. Errusian jaio zen mutiko bat da, eta berez martetarra. Gerra gogorak izan zituztela eta oraindik ere, gaur egun, bizi direla dio. Gordeta, lurrazpian bizi direla. Ez dakit zer den, eta egia den edo ez esatera ni ez noa. Ura azaldu da, eta bizi pibiliteak egon dira, eta gaur egun giza-kiak begiak jarrita dauzka Marten. Kontu hauek kontatzen dizkiet, eta etxera joandakoan Boris interneten begiratzeko esaten diet. Jenio bat da, eta izugarri daki. Eta oso gai polita izan daiteke beraien artean eztabaida sortzeko, eta gai honi buruz gehiago jakiteko. Hipotesi asko daude, eta zuhurtasunez hitz egin behar da gaiaren inguruan.

**Oraindik jarraitzen duzu eskoleta-
ra joaten?**

Bai, eta indarra eta gaitasuna dudan bitartean jarraituko dut. Oso pozik joaten naiz, eta guretzat hori oxigenoa da. Nork irakurri duen eta ez duen ikusten duzu, zein sentsazio utzi dizkion, zein gai gustatzen zaizkion,... Eta oraindik badauzkat gai gehiago idazteko.

Galdera asko izaten dituzte?

Normalean galdera pila bat izaten dituzte, eta oso kuriozoso da umeen mundua. Liburuaz aparte, galdera filosofikoak ere izaten dituzte. Bakarren batek liburua ez zaiola batere gustatu esateko ere ez du arazorik, eta onartu egin behar duzu. Normalean iritzi positiboak jasotzen dituzu, baina negati-

boa esan behar duenak ez du beldurrik eta lotsarik. Eta, alde batera, ona da hori, zuk gehiegi ez sinesteko.

**Liburu mordo argitaratu duzu.
Kontatuta dituzu?**

Azken hau ez nago seguru 41 edo 42.a den; 41.a izango dela uste dut. Beste bat ere badut idatzita, baina oraindik ez dago argitaratuta. Siberiako neskatxo baten istorio oso polita da, hunkigarria. Ibaizabal argitaletxean dago argitaratzeko zain. Arrikruzko gure galea helduentzako idatzi gabe neukan, eta horrekin ari naiz borrokan. Bukatu nuen, baina laburtzen ari naiz. Gaueko sentsazioak, haluzinazioak,... azalduko dira, eta Euskal Herriko espeleologiari buruzko begirada bat ere ematen diot. Tolosako Felix Ruiz de Arkate azaltzen da, hemengo espeleologorik garrantzitsuenetako bat izan da.

Idazteko iturria ez zaizu agortu.

Oraindik ez, eta inspirazioa dagoen bitartean jarraituko dut. Adibidez, *Euskaldun bat Marten* ipuinarekin ez dakit zer gertatu zen, baina musa bereziren bat etorri zitzaidan orduan. Amerikarrak ilargira joan ziren orduantxe, uztailaren 2lean, eta nik uste dut abuztuaren 1erako ia ipuina idatzita neukala. Abuztuaren 1etik 5era, oso inspirazio azkarrarekin izan zen, eta ea jarraitzen duen pixka batean.

**Eskolaz eskola ibiltzen zara, eta
nola ikusten edo sentitzen duzu
irakurzaletasuna haurren artean?**

Askok ari da jaisten. Eskoletan ibiltzen garen idazleok oso argi nabarmentzen dugu. Alde batetik, eskolen artetik ere eskaera askoz gutxiago dago eta, bestetik, guztiok dakigun moduan, haurrei tabletek eta mugikorrek irakurtzeko gogoa eta denbora jaten die. Gauza azkarragoetara ohitu dira. Irudiak eta mugimenduak oso azkarrak dira; gerra txikiak eta dauden joko guztiak oso bizkorak dira. Irakurketak modu pausatuan egitea eskatzen du; lasai, pentsatuz, sakonduz, arnastuz... Eta etsai handi samarra sortu zaigu hor. Irakurketa, ordea, beti izango da disfrutatuz eta patxadan egin beharreko gauza. Etxean ere bilobekin garbi ikusten dut.



Lauburu Ibarra taldeko partaideak. ATARIA

Goiko postuak jomugan

Lauburu Ibarra ligan igoera faserako sailkatzea du helburu, eta Errege Kopan lehen kanporaketa gainditzea

Imanol Garcia Landa Ibarra

Sendo hasi du denboraldia gizonetzkoen Lauburu Ibarra areto futboleko taldeak. 6-0 irabazi zuen etxean, Belabietan, Juventud del Circulo taldearen aurka. «Ondo hastea garrantzitsua denez, hiru puntuak lortuta, ezin hobeto», esan du Aitzol Oiarbide kapitainak. «Guk gure erritmoa jarri genuen, bagenekielako, beraiei utziz gero, arriskutsuak izan zitezkeela. Golak pixkana etorri ziren, lehen zatia 3-0 bukatuz, eta bigarren goan beste hiru golak sartuz».

Bigarren B mailan aritzen da Lauburu, eta taldea mantentzea lortu dutela nabarmendu du Oiarbidek. Denboraldi honetan ere goiko postuetan egotea dute helburu: «Gainera, aurten aldatu egin dute sistema. Aurretik sailkapeneko lehenengoak jokatzeko bazuen igoera fasea, orain lehenengo laurek jokatu dute. Beraz, helburua igoera faserako sailkatzea da». Azken bi urteetan lehen hiru postuen barruan sailkatu da Lauburu, Errege Kopa jokatzeko aukera izanik, eta den-

boraldi honetan ere argi dute bere lekua goiko postu horietan egotea dela.

Aldaketa izan da jokatzeko duten multzoan, eta Valentziako taldeak ez dituzte aurkari izango. Bestalde, Guardo Deporcyl izeneko Palentziako talde bat sartu dutela gogora ekarri du Oiarbidek: «Badakigu, hor aurrean izango da, jokalar oso onekin, eta maila handia emango du. Orokorrean, maila oso antzekoa izango da. Talde batzuk ondo indartu dira, eta azpialdetik badira gerra emateko gai direnak».

Errege Kopan ere aldaketak

Aurten, iaz bezala, Errege Kopa jokatu dute Lauburukoek. «Aurreko urtean egindako lanaren emaitza da. Aurten aldaketak ere izan dira, eta azkenean lehen bostak sartu dira kopan. Badirudi Bilboko Otxartaberen aurka jokatu dugula, eta urriaren hasiera aldera izango dela partida. Datorren astean konfirmatuko digute». Kanporaketa partida bakarrera jokatzeko, eta aurreko denboraldian postu okerrago batean bukatu zuenaren etxean. Beraz, Otxartaberen aurka jokatu gero, Bilbon izango dute partida. Kanporaketa gaindituz gero, bigarren mailako talde baten aurka jokatu luke. «Aurreko urtean izan genuen esperientzia hori aprobetxatzeko aukera, eta ea aurtengoan ere posible den».

LAUBURU IBARRAKO PARTAIDEAK

Iñaki Peña. Ibarra, 1998. Atezaina.

Andoni Agirrezabala. Ibarra, 1998. Ezker atzelaria.

Andoni Zumeta. Tolosa, 1992. Hegalekoa-aurrelaria.

Aitzol Oiarbide. Ibarra, 1990. Unibertsala.

Xabier Juaristi. Tolosa, 1994. Atzelaria-hegalekoa.

Oihan Karlosena. Ezkirotz, 1997. Hegalekoa.

Andoni Karlosena. Ezkirotz, 1994. Atzelaria-hegalekoa.

Javi Saldise. Iruizun, 1992. Hegalekoa-aurrelaria.

Endika Uribe. Tolosa, 1988. Atezaina.

Dani Garcia. Iruñea, 1996. Atzelaria-hegalekoa.

Jorge Sanchez. Zarautz, 1993. Atezaina.

Beñat Aldalur. Tolosa, 1997. Hegalekoa.

Oier Goikoetxea. Belauntza, 2002. Hegalekoa.

Alvaro Alonso. Alegia, 2001. Hegalekoa.

Alfredo Hualde. Iruñea, 1976.

Entrenatzailea.

Aitor Andres. Ibarra, 1987. Ordezkarria eta fisioterapeuta.

Hiru aurpegi berri izango dira Lauburun: Endika Uribe, Jorge Sanchez eta Xabier Juaristi. Taldea utzi dutenak, berri, Joseba Balerdi, Zuhaitz Garmendia eta Jon Garmendia izan dira.

Mailari eusteko gogoz



Laskorain taldeko kideak. ATARIA

Aurreko denboraldian mailari eutsi eta gero, aurtengoan ere helburu bera lortzeko gogoz egingo dute lan, Laskoraingoek

I. Garcia Landa Tolosa

Ez du hasiera gozoa izan, ligan, areto futboleko Laskoraingo lehen taldeak. Beste multzo batetik etorritako Guardo Deporcyl talde palentziarrak 8-0 irabazi dio lehen jardunaldian. «Aurreko denboraldian lehen hiru postuetan sailkatu zen bere multzoan, eta lehen partida beraien aurka izan dugu eta aurkari zaila izan da», esan du Beñat Balerdi Laskoraingo kapitainak. Atsedenaldira 5-Oko markagailuarekin joan ziren, eta, nahiz eta aukera batzuk izan, Laskorainek ez zuen golik sartu. Aurkariak, berriz, beren kalitatea erakutsi zuten atearen aurrean. Bigarren zatian atezain-jokalaria atera zuen Tolosako taldeak, baina alferrikakoa izan zen.

Aurreko urteko eskarmentua badute Bigarren B Mailan, eta badakite ez dela maila erraza. «Gu gazteak gara gehienak. Gogoia dugu jokatzeko eta hor segitzeko, eta mailan mantendu ahal izateko. Badakigu hasiera zaila dugula, bai lehenengo partida horrekin, eta baita orain datozen biekin ere, aurkari zailak direlako», esan du Ba-

lerdik. Aurreko denboraldian goiko postuetan ibili zen Tafallako taldea izango dute aurkari, asteburu honetan, eta hurrengoan Lauburu Ibarren aurka dute derbia. «Hauek liga irabazteko lehia horretan ibiltzen dira. Badakigu zaila daukagula, baina partidaz partida joango gara, ahal dugun gehiena ematen, eta gogoz jarraituko dugu, ez gara behera etorriko», zehaztu du Balerdik.

Maila mantentzea lortu zuten aurreko denboraldian, eta oraingoan ere gauza bera egitea espero dute. «Aurten ere ilusio berarekin ariko gara. Dena ematera joango gara partida bakoitzean, behintzat guk dakiguna egiten saiatuko gara, eta ea mantentzea lortzen dugun aurten ere», gaineratu du kapitainak.

Etxean indartsu izateko nahia

Kanpoko partidetara ere irabaztera joaten direla dio Balerdik, «baina etxeko partidetan indartsuak izan nahi dugu, eta beti punturen bat lortu. Partida serioak egin nahi ditugu, eta ahal ditugun puntu gehienak eskuratu».

Taldean zenbait aldaketa izan dira, baina jokalariek gehienak jarraitzen dutela nabarmendu du kapitainak. Taldea utzi dutenak Koldo Iriarte, Xabi Juaristi eta Aritz Lasa izan dira, eta aurpegi berriak, berriz, Asier Mujika,

LASKORAINGO PARTAIDEAK

Odel Gartziarena. Berastegi, 1998. Atezaina.

Aitor Narvarte. Tolosa, 2000. Atezaina.

Alex Ibañez. Tolosa, 1996. Atezaina.

Mikel Juaristi. Tolosa, 1999. Atzelaria.

Beñat Balerdi. Tolosa, 1993. Atzelaria.

Josu Iturralde. Tolosa, 1990. Hegalekoa.

Paul Rueda. Tolosa, 2000. Hegalekoa.

Iker Manso. Ibarra, 1990. Hegalekoa

Iker Gabarain. Tolosa, 1998. Hegalekoa.

Jon Ander Cuadrado. Tolosa, 2000.

Hegalekoa.

Asier Mujika. Irura, 2001. Hegalekoa.

Beñat Ugartemendia. Berastegi, 1992.

Hegalekoa.

Eñaut Vazquez. Ikaztegieta, 1990.

Aurrelaria.

Xabier Arranz. Ibarra, 1998. Aurrelaria.

Haritz Zabala. Tolosa, 1995. Aurrelaria.

Narciso Pavo. Higuera de la Serena, 1965.

Entrenatzailea.

Iñigo Gonzalez. Tolosa, 1987. Ordezkarria.

Odei Gartziarena eta Xabi Arranz. «Gazteak dira eta ilusioarekin etorri dira. Oso ondo egokitu dira, giro ederra dugu eta ea denon artean aurrera ateratzen dugun denboraldia», esan du Balerdik. «Lehen esan bezala, Bigarren B Maila gogorra da, eta iaz hori frogatuta geratu zen. Horrek ere tira egiten dituzu, ilusioa eta gogo sortuz talde indartsuen aurka jokatzeko».



Berrobira krosa izango da bihar



Pasa den urteko lasterketako sari banaketa. IMANOL GARCIA LANDA

12

Gaztetxoentzat adinaren arabera lau itzuli izango dira, eta 14 urtetik gorakoek 7,5 kilometro egin beharko dituzte

Iñigo Terradillos Berrobi

Ibin Kirol Klubak antolatuta, eta Berrobiko Udalak babestuta, XVII. Berrobira Herri Krosa egingo dute bihar. Gaztetxoei zuzendutako lasterketa eta helduei zuzendutakoa prestatu dituzte antolatzailerek. Haurrei dagokienez, 16:00etan hasiko dira aurrebenjaminak eta eskolari itzuli bat emango diote. Ondoren, benjaminak bi itzuli eman beharko dizkiote, alebinek gero, ermitatik itzuli bat emango dute, eta, azkenik, infantil mailakoek ermitatik bi itzuli egingo dituzte. Helduak, hau da, 14 urtetik gorakoak, 17:00etan hasiko dira, eta bost itzuli eman beharko dizkiote 1,5 kilometroko zirkuituari, 7,5 kilometro osatuz.

Parte hartu nahi duten 14 urtetik beherakoek, bihar 15:30etik aurrera izango dute izena emateko aukera. Helduek, berriz, *herrikrosa.com* atarian egin ahaliko dute, lasterketa egunaren aurretik, 8 euro ordainduta, edo, bestela, lasterketa egunean bertan ere egin dezakete, 10 euroren truke.

Sariei dagokienez, helduen kategorian, lehen hiru sailkatuek jasoko dituzte sariak, eta baita herriko lehen emakumezko eta gizonezkoak ere. Horrekin batera, probaren amaieran, bertako produktuak zozkatuko diuzte parte-hartzaile guztien artean. Gaztetxoek kasuan, kategoria bakoitzeko lehen emakume eta gizonezkoek jasoko dute saria, eta parte hartzaile guztientzat domina banatuko dute.

17 urte hauetan lasterketa aurrera eramateko jasotako laguntza eskertu dute Ibin elkartetik, «Berrobiko Udalarrena, eta baita urtero ditugun babesleena ere». Era berean, boluntarioen lana ere «beharrezkoa» dela gehitu dute, eta pozik daude aurtengoarekin: «Lasterketan hainbat zereginetan laguntzeko beharra izaten da, eta aurrean lan talde polita sortu dute antolakuntzarako».

Pasa den urteko lasterketan, helduen kategorian, 58 atletak eman zuten izena, eta horietatik 12 emakumezkoak izan ziren. 14 urtetik beherakoek kasuan, 49 lasterkari izan ziren. Ibin elkartetik azaldu dutenez, «urte osoan herrian barrena lasterka eginez topera entrenatzen duten herritarrek badira, baina, bereziki azken aste hauetan, nabari da jende gehiago, lasterketarako prestatzen».

TALDE NAGUSIAK

Castro Urdiales

LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Bigarren B Maila. Irailak 21, larunbata, 18:00etan. Peru Zaballa kiroldegian, Castro Urdialesen.

LASKORAIN

Tafatrans Vulcanizados

Areto futbola. Bigarren B Maila. Irailak 21, larunbata, 16:00etan. Tolosako Usabal kiroldegian.

Osasuna B

TOLOSA CF

Futbola. 1. Maila Nazionala. Irailak 21, larunbata, 16:30ean. Iruñeko Tajonar futbol zelaian.

Somorrostro

TOLOSA CF

Futbola. Hirugarren Maila. Irailak 22, igandea, 11:30ean. Muskizeko Malekon futbol zelaian.

TOLOSA CF ESKUBALOIA

El Pilar Maristas

Eskubaloia. 1. Maila Nazionala. Irailak 21, larunbata, 18:30ean. Tolosako Usabal kiroldegian.

**BILLABONA FUTBOL KIROI ELKARTEA**
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA
Larunbata, 21 • 15:30
Jubenilen 1. maila
BILLABONA FKE
HERNANI C.D
Larunbata, 21 • 17:45
Jubenilen ohorezko maila
BILLABONA FKE
PASAIA K.E.



Sexu heziketa bortxaketak ekiditeko



Aurtengo uda ere ez da oso desberdina izan, nahiz eta mugimendu feministak gogor landu duen autodefentsa feminista: aurtengo udan ere bortxaketak izan dira Euskal Herriko hainbat puntutan.

Gehienak hiri nagusietan gertatu dira, eta oihartzun handiena eduki dutenak Bilboko Manada eta Donostiako edo Baionako festetan gertatu diren bortxaketa eta genero indarkeriak izango lirateke. Horie guztiak gaur egungo gizarte patriarkalean hobetzeke legokeen puntu garrantzitsu bihurtu dira.

Azken urteetan, hau ekiditeko hainbat korronte zabaldu dira, eta erakundeen erantzuna beti berbera izan da: aurre egiteko segurtasun neurriak handitu egin behar direla entzun ohi dugu, kamerak ezarri, udaltzain gehiago kontratatuz... Horrek kostu ekonomikoa handiagotzen du, eta emaitza berdintsua uzten.

Bada beste bide bat, oraindik gure lurraldean jorratu ez dena, eta Europan eta AEBetan erantzun txukuna izan duena: 8 urtetatik eskolan sexu hezkuntza erakustea, ez antisorgailuak eta Hiesa ekiditeko neurriak bakarrik erakutsiz, baizik eta eredu parekideago bat sustatuz. Izan ere, gaur egungo haurrek, 8 urtetatik aurrera, internet erabiltzen dute, eta hori gurasoen errua da.

Haurrek apustu etxeen eta kontsumismo basatia-

ren iragarkiak irensten dituzte eta, gainera, heldu izatearekin amesten dutenez, sozializaziorako pausoa emateko eta jarduera sexualaz gehiago jakiteko, pornoa hartzen dute eredu, bertako jokamoldeak imitatuz eta emakumea objektu eta tresna dela pentsatuz. Bertako irudiek emakumea gutxietsi eta esklabo bihurtzea helburu dute.

Estatistikek oso garbi uzten dute non dagoen arazoa, izan ere, 14-18 urte bitarteko gazteen %33k internet bidez jasotzen dute sexu heziketa; horietatik %9,2k pornografia dute irakasle.

Hainbat adituren ustez, komunikatzeko eta harremanetzeko zailtasun handiagoa dugu gizakiok, eta, askotan, informazio zuzenik gabe jotzen dugu. Haurrek, txikitatik ikasi behar dute parekidetasuna, ahalduntzea, aniztasuna eta errespetua zer diren, eta ez esaten eta ez entzuten ere bai.

Norbere gorputza onartzen eta gorputz guztiak desberdinak izan daitezkeela ikusten ikasi behar dute. Laneketa hori ez da egun edo tailer batean egitekoa eta, gainera, hezkuntzan toki finko bat eduki beharko luke, 8 urtetik 18 urtera bitarte iraun behar duen prozesua baita. Neskaren eta

mutilaren arteko sailkapena hausteak ekar lezake, denok pertsona parekide eta libre bezala hezteko.



**ANDER OTAÑO
ZUBELDIA**
GEOGRAFOA

«Lasterketa teknikoak gustatzen zaizkit»

14

ANE ITURRIA
MENDI LASTERKARIA

Korrika egitea gustatzen zaio tolosar gazteari, berdin dio aldapan gora edo behera izan. Mendian ibiltzeko afizioa familiatik datorkio, txikitan guztiz gustuko ez bazuen ere. Orain gozatu egiten du, eta mendi lasterketetan emaitza bikainak lortzen ditu.

Imanol Garcia Landa

Ane Iturriarentzat (Tolosa, 2001) orain arteko denboraldi onena izaten ari da aurtengoa. Besteak beste, mendi lasterketetako Munduko Txapelketan, junior mailan, bigarren egin zuen proba orokorrean, eta laugarren kilometro bertikalean.

Munduko Txapelketatik hasiko gara. Nola jaso zenuen lortutakoa?

Oso ondo pasatu nuen. Egia esan, ez nuen espero emaitza hori, maila handia zegoelako. Oso esperientzia polita izan zen. Bertikalean laugarren egin nuen. Banaka ateratzen ginen, eta inongo momentutan ez nekien zein postutan nengoen. Neska batzuk aurreratzen nituen, baina ez nekien zehazki nola nindoan. Lasterketan, esango nuke denbora guztian bigarren joan nintzela, agian hirugarren une batzuetan, baina orokorrean bigarren.

Estrategiarik-edo erabili zenuen lasterketan?

Dena emanda joan ohi naiz, ahal dudan azkarren, eta jakinik bigarren zoazela, gehiago motibatzen zara.

Aurreko urtean laugarren egin zenuen proba orokorrean, eta orduan kadete mailan izan zen. Aurten, junior mailako lehen urtean, bigarren. Zer suposatzen du horrek?

Ilusio handia egin zidan. Urte guztian aritu naiz prestatzen Munduko Txapelketara joateko, Espainiako Kopa eta Txapelketa eginez. Aurreko urtean egin nituen prestaketa horiek, baina Munduko Txapelketara lesionatuta iritsi nintzen. Aurten, jakinik ez nengoela lesionatuta, eta emaitza on dezente lortu nituela Espainiakoetan, ilusio handiarekin joan nintzen.

Askok aldatzen da egoera, Espainiako Txapelketatik mundukoetara?

Maila aldetik, handiagoa dago mundukoetan. Eta baita igo



behar diren metroei dagokienez ere. Munduko txapelketan 23 kilometro egin genituen, eta 2.300 metro aldapa gora, eta Espainiako Kopan kilometroak antzekoak ziren, baina aldapa gutxiago igotzen zen, 1.000 metro inguru.

Espainiako txapelketa eta Kopa, beraz, prestaketa bezala hartu zenituen.

Nire helburua Munduko Txapelketara joatea zen, baina, nahiz eta ez joan, lasterketa horiek ere egingo genituen, gustatu egiten zaizkiguetan, nire ahizpari eta niri. Besteak beste, jendea ezagutzen dugulako.

«Ilusioa egin zidan Munduko Txapelketan lortutakoak; urte guztian aritu naiz hori prestatzen»

Eta, zer emaitza lortu zenituen?

Espainiako Koparen lehenengo proban lehen postua egin nuen, gero, hurrengoan, hirugarren, eta beste guztietan lehen postua lortu nuen; beraz, kopa irabaztea lortu nuen. Espainiako Txapelketan, berriz, lasterketan bigarren izan nintzen, eta bertikalean lehenengo. Nire lehenengo urtea izaten ari da junior mailan, eta gustura nago lortutako emaitzekin.

Espero zenuen horrelako mailan ibiltzea?

Banekien Espainiako Txapelketan aurrean ibiliko nintzela, baina, ikusi behar izaten da eguna nola ateratzen zaizun, eta aurkariak ere nola dauden.

Munduko Txapelketan Espainiako selekzioarekin aritu zinen. Nola izaten da aukeraketa?

Lehenengo, Espainiako Txapelketan –bai lasterketan, bai bertikalean– irabazten dutenak joaten dira. Hortik aurrera, beraien irizpidearen arabera egiten dute aukeraketa. Kopan lehenengo geratzen bazara, agian hautatzen zaituzte, edo ez. Ez da ziurra. Nik, bertikalean irabazi nuenez, orduan lortu nuen txartela Mundukora joateko. Aurretik kopa irabazita nuen, baina bukaerara arte ez nekien joango nintzen ala ez.

Beste zenbait probatan parte hartu duzu denboraldi honetan ere.

Zegama-Aizkorriko gazteen proban parte hartu nuen, eta oso gaizki joan zen. Hasieran erori egin nintzen, mutil guztien artean. Aurrera segitu nuen, baina gaizki. Gainera, inguru horretan selektibitatea nuen eta... Aurreko urteetan denbora hobea egin nuen, eta lehen postua lortu nuen bi aldiz. Aurten laugarren egin dut.

Beste lasterketaren bat nabarmenduko zenuke?

Batez ere, Espainiako Koparen barruan zeuden lasterketak egin ditut. Gero, Munduko Txapelketaren ondoren, Peña Oroelera igoeran lehen postua egin nuen.

Urtea bukatu aurretik beste lasterketaren batean parte hartuko duzu?

Agian Euskal Herriko bertikalen bat edo beste egingo dut, baina oraindik ez dut ezer zehaztuta.

Mendi lasterketetan parte hartzeko, nagusien probetan, adinaren muga izan ohi da. Orain 18 urte beteta, parte hartuko duzu proba horietan?

Oraindik ez dut helburu finkorik. Aurrerago ikusiko dut zein lasterketetan parte hartzen dudana. Espainiako Txapelketak egingo ditut, esaterako. Gero, helburua izan daiteke Munduko Txapelketara joatea edo lasterketa jakin bat prestatzea. Oraindik ez dakit.

Nola hasi zinen mendi lasterketetan parte hartzen?

Txikitatik gurasoekin mendian ibili izan gara, lasai-lasai. Gero, ni txikia nintzenean, aita mendi lasterketetan ateratzen zen. Nik txikitatik ikusten nuen. Probatzen hasi nintzen, eta hortik etorri zen afizioa. Azkenean, familiak bul-tzatuta sartu naiz.



Beste kiroltik edo ariketa fisikorik egin izan duzu?

Bost urte nituenetik 14 urte arte–edo balleta egin izan dut. Bestela, mendira lasai joaten nintzen, oinez, gurasoekin.

Uneren bat izango zen mendi lasterketetan serioago sartzeko, nolabaiteko inflexio puntu bat.

Hamalau urterekin Aralarko XIV Orduetan atera nintzen, eta asko gustatu zitzaidan hori; proba bera egitea, eta mendian denbora pasatzea. Txikia nintzenean purrustan joaten nintzen beti mendira, eta orain kontrakoa, orain gusturago. Mendi lasterketetan emaitza onak lortzen ari nintzela ikustean, batez ere Zegaman lehenengo aldiz atera nintzenean, orduan serioago hartzen hasi nintzen, entrenamenduak–eta egiten.

Nola egiten dituzu entrenamenduak?

Hasieran nire kabuz hasi nintzen, baina, aurreko urtetik Jokin Lizeagarekin nago, eta berak entrenatzen nau, eta oso gustura. Berak jartzen dizkit hilabeteroko entrenamenduak.

Zenbat denbora aritzen zara astero?

Udan kilometro gehiago sartu ditut, baina, orain, unibertsitatean hasi naizela–eta, gutxiago egiten dut. Denboraldi–aurrean ere karga gutxiago sartzen dit. Horrez gain, bizikleta ere eginarazten dit. Ahal bada mendiko bizikletan



eta, bestela, estatikoan. Azken hau ez zait asko gustatzen, baina egin beharra dago. Nahiago izaten dut mendira atera.

Eta zein ingurutan egiten dituzu korrika saioak?

Itzuli txiki bat egin behar bada, Zazpi Bideetatik-eta. Uzturrera ere askotan joaten naiz, eta Belabieta aldera. Arrospede edo Lartera ere bai. Eta, itzuli handiagoa egin behar dudanean, Herniora joaten naiz, baita Txindokira ere, kasu honetan aitarekin, kotxez eramaten nauelako. Horrez gain, Pirinioetara joaten garenean, hor ere mendi batzuetan ibiltzen naiz, Collarada aldetik-eta.

Irene ahizpa gazteagoa ere mendi lasterketetan lehiatzen da. Batera aritzen zarete entrenatzen?

Udan dezente entrenatu dugu batera. Orain Irene batxilergoa egiten ari da, eta ordutegi aldetik zailagoa da batera entrenatzeko, baina, ahal dugunean, batera joaten gara.

Aholkuak ematen dizkiozu?

Ni aholkuak emateko oso txarra naiz. Bat edo beste eman go nizkion; azkenean, batak besteari laguntzen diogu.

Nahiago duzu konpainian entrenatzea?

Bakarrik ere gustura ibiltzen naiz, baina izaten dira, beste norbaitekin joanez gero, bidea errazago edo entrenigarriago egin den egun batzuk.

«Txikitan izan nuen
erreferentzia nire aita
izan zen; berak
erakutsi zidan
mendian nola ibili»

Esan duzu bizikleta estatikoan baino gusturago ibiltzen zarela mendian. Zer sentitzen duzu mendian korrika egiten duzunean?

Korrika egin eta gero lasaiago geratzen naiz. Pertsona urduria naiz, geldirik egoten ez dena. Mendian gustura sentitzen naiz.

Aldapan gora joan behar bada ere bai.

Bai, aldapan gora, aldapan beheara; edozer gustura egiten dut.

Eta, non moldatzen zara hobeto, aldapan gora edo beheara?

Egia esan, ez dakit non moldatzen naizen hobeto. Badira teknikoak diren lasterketa batzuk, oso ondo joan zaizkidanak, eta hain teknikoakez direnak ere ondo joan zaizkit. Niri gustatzen zaizkit teknikoak diren lasterketak: zailtasun gehiago dituzte, eta bidea harriekin-eta denean gustatzen zait, baita lokatza dagoenean ere. Azken finean, ibilbidea oso monotonoa ez denean gustatzen zait, bere zailtasunak dituenean.

Baduzu gustuko duzun korrikalariren bat, erreferentzia moduan duzuna?

Erreferentziak ez ditut. Noski, hor daude Kilian Jornet eta Emelie Forsberg; baita Maite Maiora ere, hemengoa. Baina ez ditut erreferentzia bezala hartzen. Nik nirea egiten dut. Txikitari izan nuen erreferentzia nire aita izan zen, berak erakutsi zidan mendian nola ibili.

Mendi lasterketetan gero eta jende gehiago dabilela ikusten duzu?

Nik uste dut gero eta jende gehiago dabilela. Nire aitak esaten du, orain dela urte batzuk ez zela inor ibiltzen, eta nik uste dut jendea afizioa hartzen ari dela. Gero eta gazte gehiago ikusten dira, Espainia mailan behintzat bai, eta hori ere ona da.

Bada mendi lasterketetan parte hartzen duzuenok erotuta zaudetela pentsatzen duenik. Zer esango zenieke?

Nire lagunak esaten didate erotuta nagoela, beti hor mendian, kilometroak egiten. Nik esaten diet ezetz, gustatzen zaidala, eta sartzen ditudan kilometroak ez direla hainbeste. Saiatzen naiz lagunak mendian hastera animatzen, baina ez dut lortzen. Joan izan naiz lagunekin Uzturrera oinez, baina korrika ez.

Gazte mailan parte hartze baxuagoa izaten da, baina,



ikusten duzu pixkana gazte gehiago animatzen dela?

Euskal Herrian ere maila badago, Espainiako selekzioarekin sei euskaldun joan baikin Munduko Txapelketara. Horrez gain, adibidez, ikusten da Katalunian eta Andaluzian korrikalari gazte asko daudela.

Munduko Txapelketan bazen gailentzen zen selekzioaren bat?

Nik uste dut Espainiako selekzioak duela maila handienetakoa. Proba dezente egiten dituzte hautaketak egiteko; besteetan ez daude hainbeste gazte. Italian, adibidez, badago maila. Aurtengo Munduko Txapelketan, taldeka, Espainiako selekzioa bigarren izan zen.

Zein da zure lasterketa gustukoena?

Lasterketa asko gustatzen zaizkit. Bat esatekotan, Axari Trail esango nuke. Aurten ez naiz atera, baina asko gustatzen zait. Collaradako lasterketa bertikala ere oso gustuko dut.

Eta baduzu lasterketaren bat bereziki egiteko gogoa, adinarengatik-edo aurretik egin izan ez duzuna?

Gustatuko litzaidake, hemendik urte batzuetara, Zegama-Aizkorri maratonia egitea, eta baita Tolosaldeko 3 Tontorrak ere. Baina, epe motzean, ez dut horrelako ezer pentsatuta. Joango gara ikusten.

Lasterketak egiteaz aparte, baduzu buruan markaren bat egitea? Uzturre igotzea, adibidez?



Ez, ez dut ezer buruan. Orain Uzturrerena esaten duzula, agian hori izan daiteke horrelako aukera bat. Baina ez, ez dut inoiz pentsatu horrelakorik.

Mendi lasterketek izango dituzte, noski, bere alde txarrak eta onak. Zuretzako zein dira?

Alde txarrak... Ez zaizkit etortzen. Beno, lesioak izan daitezke. Alde onak asko ditu, txarrak baino gehiago. Orokorrean, gustatu egiten zaidala mendian korrika egitea, eta jende asko ezagutzen duzula. Nik disfrutatu egiten dut.

Mendi lasterketez gain, mendiko eskian ere lehiatzen zara. Nolatan hasi zinen?

Aurreko denboraldian hasi nintzen lehiatzen, Euskal Selekzioarekin. Ikusten nuen korrika egiten zuen jende askok mendiko eskia egiten zuela, eta probatzeko gogo sartu zitzaidan, eta azkenean gustatu; eta horrela animatu nintzen.

Gustatu bakarrik ez, Espainiako Txapelketan emaitza onak lortu zenituen aurreko neguan.

Bai, bertikaletan bigarren egin nuen, eta gustura. Beherantz asko daukat ikasteko oraindik...

Datorren neguan ere mendiko eskian lehiatzen jarraitzea pentsatzen duzu?

Bai, orain denboraldi-aurrearekin hasiko naiz, rolleskia egiten. Gero, Euskal Selekzioarekin lasterketetan parte hartuko dut.

«Ikusten nuen korrika egiten zuen jende askok mendiko eskia egiten zuela, eta probatzeko gogo sartu zitzaidan»

«Euskarazko hitzak soinuuen mapak dira»

GORKA GARMENDIA AIZPURUA
IKERLARI ETA IDAZLEA

20

Xibarit argitaletxearekin 'BA edo munduen arteko oreka' liburua argitaratu du; Joseba Urretabizkaia tolosarraren argazkiekin osatu du argitalpena, eta Bixente Gorostidi amezketarrak itzuli du testua euskarara.

Jon Miranda Labaien

Telebista munduan egin izan du lan Gorka Garmendia Aizpuruak (Donostia, 1968), eta duela zazpi urtetik hona Amezketa bizi da, Txindoki mendia-
ren magalean, eta Araitz bailaratik ez oso urruti. Bertan koku-
du du eleberria, «lurraren mugan, aurrekoek BA esaten
zioten leku hartan».

**Non du sorburua 'BA edo munduen arteko oreka' li-
buruak?**

Betidanik izan dut historia eta arkeologiarekiko zaletasu-
na, eta ikerketa asko eginda dauzkat Nafarroa aldean. Jen-
de heldua elkarriketatu izan dut eta istorio piloa jaso dut.
Informazio hori guztia kanporatzeko beharra eta erantzun-
kizuna sentitzen nuen, ikertutako guztia gal ez zedin. Urte-
otan ikusitako eta ikasitako guztiaren emaitza da liburua.

**Genero gisa, eleberria erabili duzu istorio horiek guz-
tiak kontatzeko. Zergatik?**

Hainbeste urtetako ikerketen ondoren, sumatu nuen eus-
karak gainerako hizkuntza aurre-indoeuroparren gisan

funtzionatu behar zuela. Hori frogatu nahian ahozko tradi-
zioa arakatzen hasi nintzen, elkarriketak egiten, toponi-
moak begiratzen, garai hartako artxiboak aztertzen eta in-
guruko baserrietako ganbaretan zeuden objektu etnografi-
koak ikusten. Aitortu zidaten egindako lana, baina
arkeologia edo hizkuntzalaritzan titulaziorik ez nuenez,
ezin izan nuen ezer zientifikorik idatzi. Horregatik erabaki
nuen liburua eleberri modura planteatzea, ez nuen hau
guztia kontatu gabe geratzea nahi. Gertatu ziren gauzak
dira, baina nobelan fikzionatuta ageri dira.

**Bi pertsonaia nagusik daramate kontakizunaren ha-
ria: Jon Laboak eta haren amonak.**

Bai. Eta biak dira elkarren antitesia. Amona zaharra da,
euskalduna, herrikoa, erdi paganoa eta erritu zaharretan
sinesten duena. Jon, berriz, gaztea da, erdalduna, hirikoa,
erlijio zalea. Bi munduen arteko kontrastea adierazi nahi
izan dut bi pertsonaiekin, eta nobelan zehar kontaktzen dut
nola bilatzen duten elkarren arteko oreka. Horretarako



amonak bilobari aspaldiko garaietatik datorren sekretua pasatzen dio, belaunez belaun, emakumeek elkarri transmititu diotena.

Intzako Maria da arbasoetako bat. Dokumentatuta dago emakume hori existitu zela?

Bai, jasota dago. Intzako Txorro baserrian sortutako emakumea zen, eta 1595eko sorgin prozesuko dokumentuetan ageri da neska gaztearen izena. 13 urte zituela eraman zuten Iruñera, 9 urteko ahizparekin eta 37 urteko amarekin batera. Zoritzarrez, ez ziren handik bueltatu, epaiketaren zain zeudela hil baitziren hango zeldetan.

Sorgina al zen Intzako Maria?

Liburuan aipatzen dudan bezala, ez da sinetsi behar izan zirenik, baina ez da esan behar izan ez zirenik. Mariak Alli herriko Akelarre zelaiko erritu paganoetan parte hartu zuela aitortu zuen, eta horrela ageri da Araitz bailarako

«Sorgin ehiza baliatu zuten, ama lurrari lotuta, emakumeek zituzten ezagutzak desagerrarazteko»

1595eko sorgin prozesuko agiritan. Inkisizioak hori baliatu zuen nekazaritza munduko emakumeak gaiztoak zirela erakusteko, eta, besteak beste, tortura erabiliz, ama lurrari lotutako haien ezagutzak gure herri kulturatik betirako desagerrarazteko.

Jazarri zituzten emakume haiei guztiei errekonozimendu bat egin nahi izan diezu nobelan?

Bai. Eleberrian agertzen den amonak, Usabarrenako Grazianaren ahotik Intzako Mariaren berri jasotzen duela kontatzen da. Usabarrena baserria oraindik zutik dago Intzan. Ez dira duela hain aspaldiko kontuak, bospasei belaunaldi atzera egitea besterik ez dago; eta kontuan hartu guk, gutxienez, hiru ezagutu ditugula. Iruditzen zait emakume horiei errespetu handiagoa erakutsi beharko geniekeela. Gaur egun, atso zatarrak, erratz gaineen hegan, garatxo betetako sudur handiekin eta hortzik gabe irudikatzen ditugu, turistentzat prestatutako erakusleihoetan. Emakume hauek horrela iraintzeak ez al gaitu lotsarazten?

‘BA edo munduen arteko oreka’ du izena liburuak. Zer da BA hori?

BA bi munduen arteko muga da. Iluntasunaren eta argitasunaren arteko gunea da, gunea magikoa. Hara bidaltzen du amonak Jon, mendez mende datorren boterearen jabe egin dadin, Txindokiko mari zulora, hain zuzen. Hildakoak daude ilunpean, eta, sinesmen zaharraren arabera, gurekin daude bizi garen artean, itzal moduan. Emakumeek soilik izan dute hildakoekin harremana eta haiek mantendu dituzte hainbat erritu, ia gaur arte. Garai batean, trikuharriak zeuden tokietara joanda hildakoei eskaintzak egiten zitzaizkien bezala egiten dira gaur egun, adibidez, Amezketako elizan. Beste dimentsio horretan hildakoak argia izan dezan, etxeko suarekin pizten dira argizaio-lak bertan.

Eta, liburuaren azalerako aukeratu duzun katu beltza, zer dela eta?

Katuak bi aldetara ikusteko boterea dauka, gauez eta egunez. Gauez ere ikusten duenez, iluntasunaren mundu horretarako sarbidea dauka. Hildakoek ematen duten babesaren sinboloa da. Baserrietan maiz egon da katu beltza, babesgarri bezala, zorte ona dakarren eta emankortasun irudi den animalia gisa. Emakumeek etxean katu beltza eta, gizonekoek, ganadua babesteko, ardi beltza artaldean.

Gaur egun, berriz, zorte txarrarekin lotzen dituzte, azken mendeetan aurretik zetozen sinesmenak kamuflatzeko eta zigortzeko egindako ahaleginaren ondorioz.

Esan duzu emakumeek katu beltza izaten zutela etxean eta gizonezkoek ardi beltza belazean. Emakumeak arlo pribatura mugatuta eta kondenatuta zeuden soilik?

Emakumeak bi aldeetan ibiltzen ziren, baita arlo publikoan ere, baina erabateko nagusitasuna zuten barruko munduan. Hildakoekin komunikatu eta eguneroko bizitza argitu eta gidatzeko ahalmena zuten. Ahalmena, botere magikoa emakumeena zen, eta sinesmen pagano horretan egiazko *sazerdotisak* ziren. Gizonezkoek aitortzen zieten gaitasun hori eta estimatzen zuten pilatutako jakinduria.

Jakinduria horri esker biziraun ahal izan du gizakiak, diozunez.

Nola liteke, bestela, azken glaziazioan, hainbat giza espezie bukatu ziren garaian, hemengo Cromagnon gizakiek aurrera egitea? Garaitsu horretan erabaki zuten gizakiek, ibiltari izateari utzi eta kobazuloetan babestea. Ordukoak dira margolanak, erremintak eta suaren erabilera, baina, bereziki, emakumeen ahalmenean eta sinesmenean oinarritutako jendarte bat osatu zutela esango nuke. Emakumeek gizonezkoen mundua menderatu zuten, horretarako hizkuntza sakratua baliatuta.

Hizkuntza sakratu hori da Jonek eleberrian jasotzen duen ondarea. Euskara da?

Euskara asko daude, hika, zuka edo berorika hitz egin dezakegu. Ez diegu berdin hitz egiten umeei edo animaliei. Bada beste euskara bat, sakratua, nik euskararen arima deitzen diodana, eta nire urteotako ikerlanaren ardatza dena. Defendatzen dut, gure hizkuntza Europa mailan dagoen zaharrenetakoa baldin bada, gainerako hizkuntza aurre-indoeuroparrak bezala, onomatopeikoa izan behar



duela, kontsonante eta bokal bakoitzak bere horretan esanahia duela, Egiptoko, Babiloniako edo Mazedoniako hizkuntza zaharretan gertatzen den bezala. Euskarazko hitzak, niretzat, soinuen mapak dira.

Adibideren bat jar dezakezu?

Bai. Liburuan hitzen arimaz hitz egiten dut eta arbolaren adibidea aipatzen dut pasarte batean. Itsu batek soinua entzutearekin batera arbola ikus dezakeela esaten dio amonak Joni. Hitz hori entzunda muineko dardaraz jabetzen da itsua, eta badaki zertaz ari garen. A hizkiak bizi indarra edo arima esan nahi du, lehen pentsatzen baitzen gauza guztiek zutela arima; R hizkiak, berriz, gorputz batean harapatua dagoela esan nahi du eta B-k, berriz, lurraren mugatik jaiotakoa dela. Arb- hizkiez hasten diren hitzak badaude oraindik gaztelaniaz, *arboreo*, *arbusto*... eta horrelakoak.

Zer esan nahi du horrek, euskara hitz egiten zela lehen, Iberiar penintsulan?

Ez derrigor. Gaur egungo gaztelania erromantzearen, latinaren, arabiarren eta iberiarren arteko nahasketa da. Ez dakigu euren artean zer nolako ahaidetasuna zuten hizkuntzek garai hartan, baina, pentsatzekoa da, hasiera onomatopeikoa izango zutela. Gertatzen da iberieraren arrasto



asko galdu egin direla, eta euskara nahikoa osorik mantendu dela.


Hitzzen arima deitzen diozun hori, non sumatzen da gaur egungo euskaran?

Hitz askok kantatu egiten dute, baina erne eduki behar ditugu belarriak entzuteko. Toponimo askotan gordetzen da arima hori, baina ez Euskal Herrian bakarrik. Niri erakutsi izan dizkirate Europako leku askotako toki izenak eta, han zer zegoen ezagutu gabe, gai izan naiz antzemateko erreka den, edo bailara edo hildakoak ehorzteko toki bat. Nola jakin dudan? Euskara dakidalako. Tartesikoa, zeltera edo iberiera bezalako hizkuntzak galdu egin dira, eta euskara da haiek itzultzeko erreminta bakarra gaur egun.

Hizkuntza aurre-indoeuropearrak aztertzeke, beste hizkuntza aurre-indoeuropear bat.

Bai. Horrela behar du. Nik uste dudana da, gaur egungo hizkuntzalaritzak latinean duela abiapuntua eta horrek ez duela balio euskara bezalako hizkuntza bat aztertzeke, oso bestelakoa baita oinarria. Mundu akademikoak ez du onartzen hori, teoria asko bertan behera botatzen dituelako. Iruditzen zait, euskaldunok konplexu asko ditugula, eta beti azkenekoari begiratzen diogula, konturatu gabe, esku artean altxor izugarria daukagunean.

«Hitz askok kantatu egiten dute, baina erne eduki behar ditugu belarriak entzuteko. Toponimo askotan gordetzen da euskararen arima hori»



«40 argazki inguru dira
jasotakoak eta
izugarritzko lana dago
horren guztiaren atzean.
Agertzen diren tokiak
Araitz bailarakoak dira»

24

«EDIZIO TXUKUNA EGIN NAHI IZAN DUGU, DETAILAK ZAINDUTA»

Liburua argitaratzeko, Xibarit argitaletxera jo duzu. Zergatik?

Ezagutzen nuen Joseba Urretabizkaiaren lana eta, tamaina honetako lan bat esku artean edukita, argi nuen berarekin argitaratu behar nuela. Edizio txukuna egin nahi izan dugu, detaileak zainduta. Ama lurrak hitz egiten da liburuan, eta horregatik iruditzen zitzaigun libururako erabilietako paperak ezin zuela hala-moduzkoa izan. Italiatik ekarritako birziklatutako paper berezia erabili dugu.

Urretabizkaiak berak atera ditu argazkiak.

Bai. 40 argazki inguru dira, eta izugarritzko lana dago horren guztiaren atzean. Agertzen diren tokiak Araitz bailarakoak dira, Akelarre izeneko barrutian ere izan ginen, eta ateratako tresna guztiak XVI. mendekoak dira, baserrietako ganbaretan topatutakoak.

Zer gertatu zitzaizuen Urrizola izeneko parajea?

Urrizola bidegurutze bat da eta Betelu, Intza eta Azkaratek etorritako jendearen bilgunea zen garai batean. Gaur egun, ordea, sasiak hartuta dago eta hara iristeko laguntza eskatu genion Jose Mari Estanga Intzako artzainari. Gizarajoak ez zuen ulertzen zergatik genuen hainbesteko seta leku horretara iristeko. Azkenean, azaldu genion liburu bat osatzen ari ginela, sorginkeriaz akusatuta hil ziren emakumeak omendu nahi genituela, eta bazela bat hamahiru urterekin Txorro baserritik eramandakoa. Hori en-

tzundakoan, isilik-isilik eraman gintuen toki hartaraino, eta argazkiak atera ahal izan genituen paraje horretan. Behin herrira bueltan ginenean, Estangak azaldu zigun Txorron jaiotakoa dela bera ere.

Basoan beste sorpresa batekin egin zenuten topo.

Bai. Giro umela zen egun hartakoa, lainoa sartuta zegoen basoan, eta, bat-batean, usteldutako gaztain enbor bat azaldu zitzaigun parez pare. Ezusteko galanta hartu genuen, giza irudi baten antza hartu geniolako enborrari.

Jatorriz gaztelaniaz idatzi duzu liburua eta gero euskarara Bixente Gorostidi amezketarrak itzuli du. Itzulpenean tokiko ñabardurak jaso al ditu?

Bai, eta asko eskertzen diot. Nik ez dut euskara nahi adina menderatzen eta Gorostidik itzulpen lana egin duenean bertako formak erabili ditu. Aberastu egin du lana.

Zenbat ale argitaratu dituzue?

500 atera dira euskaraz, eta beste hainbeste gaztelaniaz. Hontza liburu dendan jarri dira aleak salgai, Donostian, eta Betelun, Araitz bailaran eta Amezketan banatu da liburua. Ia denak agortu zaizkigu, eta beste argitaraldi bat egin nahi genuke, akaso, eramangarriagoa.

Lan honek segida izango al du?

Bai. Modu batera jarraipena eman nahi genioke, oraindik era asko dagoelako kontatzeko, eta presazkoa da hori argitaratzea, betirako gal ez dadin.



Modernoak gu?

25

2019ko udaberri amaiera. Zortzi bikote ezezagun, gela goxo batean, hizlariak dionari adi entzuten. Ez da osasun konferentzia bat, ez da ekonomia arloko hitzaldi bat... Erditze aurreko prestakuntza saio bat da. Bai, gaur egun haurdunaldia, erditzea eta erditze ostea fisikoki eta emozionalki prestatzeko hainbat formatu ditugu. Emaginek, psikologoez, ginekologoez, presatzaile fisikoek, nutrizionistek eta, besteak beste, fisioterapeutok bat egin dugu, neurozientziak azaldu duen moduan, hain garrantzitsua den etapa honetan zainketa integral bat osatzeko. Ze ideia modernoak, ezta?

Eman iezaiozu begiratu bat egoerari, ordea... Modernoak gu? «A ze txorakeriak, gure garaian ez zen horrelakorik eta berdin berdinekin erditu eta hezi zaituztegu», esango digu amak. Ez, ez gara modernoak, ideia bera atzerakoia dela esango nuke. 2019an, norbaitek lagundu behar al gaitu gure senarekin konektatzen, oinarri-oinarrizko prozesu natural bat ulertu eta beldurrik gabe bizitzen? Gure amonek bazituzten beren beldurrak: zenbat haur etorriko ote dira, noiz jaioko ote dira, aurrera egingo ote du, aurrera egingo ote dugu... Baina, ziur nago, ez zutela inongo zalantzarik beraiekin erditzeko gaitasunaz. Zer gertatu zaigu ba, belaunaldi bat tarteko, erditu ahal dugula sineste-ko klase batzuetara joan beharra sentitzeko?

XX. mende hasieran erabateko aldaketak izan ziren, erditzeak artatzerako orduan. Ordura arte etxean artatuak ziren erditzeak ospitalean arta-

tzen hasi ziren. Ordura arte emaginenak ziren erditzeak medikuen eskuetara pasatu ziren. Eta, ordura arte ez bezala, besteak beste, episiotomia errutinaz burutzen hasi ziren, 1920tik aurrera, inongo ebidentzia zientifikorik gabe. Deigarria da, halaber, medikalizazio prozesu honetan, medikuak gizonezkoak izatea. Botere eta menpeko harremanak, beste behin, begi bistan. Gizonak arre, emakumeak so. Eta, horrela, konturatu gabe, urteak aurrera, prozesu fisiologikoena patologikoki bihurtuta. Emakumeak diseinuz duen gaitasun izugarriena zapalduta, ohe batean etzanda, lotuta, anestesiatuta, moztutako aluak, irekitako sabelak...

Eta hemen gaude bikote moderno gazteak, edo ama bakarrik izatea erabaki duten emakumeak, hizlari bati, beste-ari eta erreferentziatzeko sei libururi, etekina atera nahian. Informazio gehien duen belaunaldia, bere gorputzaren prozesuekiko erabat deskonektatuta, eta aurrekoek bizitako esperientzia gogor askoren motxila garraiatzen. Baina dena ez dago galduta: belaunaldi honi argia piztu zaio, aurrekoek zuten senarekin bat egin nahi du, zera hori berreskuratu nahi du, eta hori da lehen pausoa datozen belaunaldiak aldatzeko.

Alda dezagun gorputzaren berezko prozesuez hitz egiteko modua, alda dezagun sexualitateaz hitz egiteko modua, hezi dezagun gorputzetik eta naturaltasunez. Agian horrela, gure seme-alabek barre egingo digute, beraiek mundura ekartzeko konfiantza irabazteko ikastaro bat egin genuela kontatzen diegunean. «Ze modernoak ginen!».



**ALAZNE
APALANTZA**
FISIOTERAPEUTA

Agenda

OSTIRALA IRAILAK 20

IBARRA

19:00. Emakume raketistei omenaldia. Izaskun Aiestaran Perez omenduko dute, eta gero, 22:00etan, *Raketistak lehen eta orain* dokumentala proiektatuko dute, Ibarako plazako estalpean.

IRURA

SANMIELAK 2019

18:30. Agurra, txupinazoa eta Herensugearen jaitsiera.

19:00. Kalejira buruhandiekin, erraldoiekin eta Loatzo musika eskolako musikariek.

21:00. Barrikotea San Migel plazan.

Oharrak: jan-ontziak eta mahai-tresnak norberak eraman beharko ditu, eta kuadrilla bakoitzeko hiru kidek bertaratu beharko dute, mahaiak era egokian jartzeko, hutsunerik utzi gabe.

Afalostean mahaiak bildu beharko dira.

Oharra: eguraldi txarrekin, frontoian izango da.

Ondoren. Erromeria.eus taldearen emanaldia plazan.

OREXA

22:00. Ostiral kulturalak Orexako ostatuan: Maider Zabalegi, ganbaran.

LARUNBATA IRAILAK 21

BERROBI

17:00. BerroBIRA XVII. herri krosa, Ibin kirol klubak antolatuta. 7,5 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute parte hartzaileek. Izen-ematea www.herrikrosa.eus webgunean egin daiteke, eta egunean bertan ere bai.

BIDANIA-GOITATZ

18:00. Bidania-Goiazko kultur astean, erromeri arratsalde, Zabale eta Larrañaga trikitilarien eskutik, zimiterioan. Ondoren, pintxoak.

IBARRA

XI. EUSKAL HERRIA EGUNA



URTEROKO ARGAZKIA BERRITZERA, DANTZAN

Irurako Sanmiel jaien lehen asteburuko hitzorduetako bat izan ohi da, gazteen eguneko soka dantza. Bihar ere hartuko dute plaza, zuhaitzaren bueltan egin ohi zutena, zuhaitzik gabe berritzen jarraitzeko; 13:00ean hasiko da ekitaldia. **MIKEL IRAOLA**

11:00. Ongietorri hamaiketakoa, Aranen.

12:00. Altxorrenen bila jolas poteoa, herrian zehar.

13:30. Euskal Herria Eguna plazan topaketa. Ondoren, kalejira herriko plazara.

14:15. Herriko plazan argazkia.

14:30. Plazan, herrien arteko bazkaria. Bazkalostean, kanta batzuk abestu.

17:30ak aldera. Gazte asanbladak landutako arratsaldearen hasiera.

21:00. Herriko plazan parrillada: sardinak, oilasko hegatsak...

21:00. Herriko plazan kontzertua. Ondoren, gaztetxean gaudia.

IRURA

SANMIELAK 2019

09:00. Gazte-festaren hasiera San Migel plazatik.

11:00-13:00 eta 15:30-18:30. Haur-parkea garbilekuko plazan, goizean eta arratsaldean.

13:00. Urteroko gazteen dantza-soka hasiko da, San Migel plazan.

14:00. Haurren bazkaria.

14:00. Gazteen bazkaria.

18:30. Gazte eguneko poteo musikatuari ekingo diote, Elektropapo elektro-txarangarekin.

21:00. Gazteen afaria.

23:30. Governors eta Bad Sound musika taldeen kontzertuak hasiko dira, San Migel plazan.

TOLOSA

16:30. Birziklatu bigarren eskuko eta truke azoka, Berdura plazan, Ana Yurd elkarteak antolatuta. Hilaibeteko hirugarren astean izaten da.

16:30. Trial erakustaldia izango da Lopez Mendizabal plazan, Bikeshow.es-ek, eta Eguzki, Dickens, Xare, Izarra eta Karela tabernekin antolatuta. Irene Caminos tolosarra eta Javi Alonso izango dira protagonistak. 16:30ean bizikleten proba izango da, lehenik eta, gero, 18:30ean, erakustaldiari ekingo diote bi txirindularrak.

22:30. Kontzertua Bonberenean: Not Scientists. Sarrera: 8 euro.



HERRI TXIKIA, BAINA KORRIKALARIA

Ikasturte berria egonkortzen hasten denean, orduan botatzen diete berrobitarrek, erronka, herriko nahiz eskualdeko korrikalariei, BerroBIRA krosarekin. Bihar arratsaldean izango da, eta parte hartzaileek 7,5 kilometroko bidea egin beharko dute. I. G. L.

IGANDEA IRAILAK 22

BIDANIA-GOIAITZ

18:30. Bidania-Goiatzko kultur astean, Tio Teronen semeak taldearen *Festamentua* ikuskizuna.

IRURA

SANMIELAK 2019

11:00. Patata-tortilla lehiaketa San Migel plazan.

11:30-13:30. Herri kirolak haurrentzat, Kulkiren eskutik.

16:00. Talde-jokoak frontoian, DBHkoentzat.

17:00. San Miel Xare irekia Irurako Udala Sari Nagusia torneoaren finaler dia.

19:00. Sagardo dastatzea plazan.

TOLOSA

20:00. Kontzertua Bonberenean: Child Abuse. Sarrera: 8 euro.

ERAKUSKETAK

GRABATUAK

Oihana Ugarteren grabatuak.

Tolosako 3 tabernan ikusgai dago artista tolosarraren erakusketa. Joan den astean inauguratu zuten, eta datorren urriaren 13ra bitarte ikusgai izango dira obrak, Oria kaleko 12.ean.

KULTUR TAILERRAK

Marce Tenaren ikasleak. Marce Tenak zuzenduriko *Marrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa* tallerreko lanen VIII. erakusketa ikusgai da, hilaren 27ra bitarte, Ibarra Kultur etxean.

SAMLANTEGIA

Mendeurrena, 1919-2019. Tolosako SAM lantegia sortu zeneko mendeurrenean, erakusketa prestatu dute, Aranburu jauregian. Gaur inauguratuko dute, eta urriaren 19ra bitarte ikusgai izango da.

ZINEMA

‘EL REY LEÓN’

Larunbata (17:00)
Igandea (17:00). 3Dn
ikusteko aukera.
**Gurea antzokia,
Amasa-Villabona.**



‘ÉRASE UNA VEZ HOLLYWOOD’

Larunbata
(19:30/22:30)
Igandea (19:30)
Astelehena (21:00)
**Gurea antzokia,
Amasa-Villabona.**



‘ROJO’

Larunbata (19:30)
Astelehena (20:30)
Leidor aretoa, Tolosa.



‘MASCOTAS 2’

Igandea (17:00)
Leidor aretoa, Tolosa.



‘LA BIBLIOTECA DE LOS LIBROS RECHAZADOS’

Igandea (19:30 / 22:00)
Leidor aretoa, Tolosa.





ANDER GOIKOETXEA

*Iraitzen lasterketek
ze bide ze mundu
Ander artzain ona da
ta ezagun du
Haritz, Beñat bertsotan
errez buruz buru
berri onen ilarak
hartuak gaitu gu
epai edo gudu
borrokan seguru
herria helburu
Minde eta Kudu
lanean jarraitzeko
libre ditugu*



Doinua

Bretoiarena

Denboraren joana

Ez naiz izugarri sare sozial zalea. Ez naiz izan sekula, ez daukat maiz-maiz elikatzeko behar den konstantziarik. Lagunarteko afarietan tarteka gogoratzen dugu horrelako kontuetan izandako lehen saiakera hura, Fotolog izeneko argazki eguneroko bat, baina, esango nuke, nireak kolpeka funtzionatzen zuela, bolada batean eguneroko argazki bat jarri, eta beste hainbeste egun pasatzen nituelako ezer argitaratu gabe.

Ez diot baliagarriak ez direnik. Neronek maiz erabiltzen ditut, inoren zain pasa beharreko hamar minutuetan entretenitzeko edo albisteak irakurtzeko. Baita ere, eskala handi samarreko ekitaldietan gertatzen direnak zuzenean jarraitzeko, izan manifestazioak, bertso txapelketak edo estropadak.

Ordea, nire hamar minutuak irigarri dira askorentzat. Orduak behar dituzte, eta ez da broma. Demagun: ordu laurden inguru argazkiak ateratzen, hamaika postura, aurpegikera eta eszenatokitan; ordu erdi inguru bai, ate-

ratako argazki guztiak galbahetik pasatu eta sorta txukun bat aukeratzeko; eguneko argazkia zein izango den zehaztutakoan, beste hamar bat minutu edo, argazkia txukuntzeko –filtroak

aplikatu, argia aldatu...; eta, jakina, gero mezu polit bat idatzi behar da. Edo sakona, edo txorxa, eguneko aldaratearen arabera. Bada, ordubete joan zaiugu, gutxienez.

Eta hori produkzioarako bakarrik. Zer esanik ez, gainerakoan argitalpenak begiratzen eta *like* edo *atsegin dut* klikatzen pasatutako denboraz, edo norbere argitalpenak zenbat jasotzen dituen begiratzen igarotakoaz. Zer esanik ez, sarekideen oniritzi kopurua etengabe egiaztatutako beharrak sortzen dien antisietateaz.

Lagun batek abuztuaren bukaeran esan zidan, urri erdira bitarteko eguneroko argitalpenak prestatuta eta programatuta zeuzkala ordurako. Orduan, lagunartean, irakurtzen, kirola egiten, zinean edo hondartzan pasatu zezakeen zenbat denbora eman (galdu) ote du pantailari begira?



IRATI HARTSUAGA
ITZULTZAILEA

Demagun: ordu laurden inguru argazkiak ateratzen, hamaika postura, aurpegikera eta eszenatokitan; ordu erdi inguru bai, ateratako argazki guztiak galbahetik pasatu eta sorta txukun bat aukeratzeko; eguneko argazkia zein izango den zehaztutakoan, beste hamar bat minutu edo, argazkia txukuntzeko

POEMA KARLOS LINAZASORO



Oiloaren pixa

Andereño Mirarik ikastolan:
«Isilik, oiloak pixa egin arte!»
Horixe esaten zigun begitarte
ilun beltzez, liburuen kaiolan.

Zer zen esamolde hura ba? Gezurra?
Egiten al dute oiloek pixarik?
Zergatik zeukan maistrak gendorra?

Denak isiltzen ginen istantean,
ea nondik azalduko ote oiloa;
baina inoiz ez zen azaltzen bitxoa,
ez eta urrezko arrautzarik gurean.

Inortxok ez daki erantzun zuhurra.
Ez Pablok, ez Lidek, ez Joxemarik.
Mila urte igaro, eta gure kezka, horra!

2^{mó}
graduatu
erreflexuen
aurkako lenteekin

99€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren
ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza
batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



EGURALDIA



GAUR

Gaur, hego haizeak indarra hartuko du. Tenperatura maximoak nabarmen egingo du gora, eta eguerdiko orduetan 28-30 gradura iritsiko da, eta egoera eze-gonkortu. Zerua ia estalirik geratuko zaigu, eta ekaitzerako joera hartuko du. Tartean, zaparrada batzuk botako ditu; batzuk handi samarrak izan daitezke. Kazkabarra ere



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

bota dezake. Tenperaturak behera egingo du, ekaitz giroa sartzen denean.

BIHAR

Larunbatean, giro lasaiagoa izango dugu. Hego haizeak jotzen jarraituko du, eta horrekin tenperaturak altua izaten jarraituko du: 28-30 graduan kokatuko dira maximoak. Goiz partean giro argiagoa izango da. Arratsaldean zerua estali egingo da eta, iluntze partean, euritarako joeratzeko egongo da. Orokorrean, ez du ezer handirik egingo, baina zaparradaxkaren bat edo beste bota dezake, oraindik ere ekaitz kutsukoak izaten jarraitzeko aukerarekin.

ETZI

Fronte baten bisitak eta ipar mendealdeko haizeak euri giroa utziko dute, batez ere, egunaren lehendabiziko zatian. Zaparradak izango ditugu, momenturen batean, gainera, handixeagoak izan daitezke. Ondoren, eguerditik aurrera, zaparradak gero eta tartekatuagoak izango dira. Gau partean hego haizea sartuko da eta ostarteak zabalduko zaizkigu. Tenperatura maximoa 20-22 graduren bueltan ibiliko dira.

OSTIRALA
20



IGANDEA
22



LARUNBATA
21



ASTELEHENA
23



IRAGARKI LABURRAK



LANESKAINITZA

Ile apaintzailea. Tolosaldean lan egiteko ile-apaintzailea behar da. Interesa dutenek, 619 59 29 49 telefono zenbakira deizakete.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK



OSTIRALA, IRAILAREN 20A

TOLOSA

Egunekoa.

Cecilia Bronte Posada.

Korreo kalea, 20.

Telefonoa: 943 67 60 13.

LARUNBATA, IRAILAREN 21A

TOLOSA

Egunekoa.

Rosalía Morant Barber.

Zabalarreta lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

IGANDEA, IRAILAREN 22A

TOLOSA

Egunekoa.

Cecilia Bronte Posada.

Korreo kalea, 20.

Telefonoa: 943 67 60 13.

ASTELEHENA, IRAILAREN 23A

TOLOSA

Egunekoa.

Jesus M^a Echeveste Elosegui.

Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.

Telefonoa: 943 65 10 40.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA • Azpiroz, L.
Amarotz auzoa, 9.
Tel.: 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza Eguneko berriak, Galtzaundi euskara taldearen tartea, Tolomendi...

12:00. Entzuteko jaiok Musika tartea.

LARUNBATA

Egun osoan. Euskal musika.

IGANDEA

14:00. Hari Naizela Bertsolaritzari buruzko saiola, Imanol Artola Felix-ekin.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza Eguneko berriak, asteburuari begirada, bidaiarien tartea...

12:00. Entzuteko jaiok Musika tartea.

107.6 fm

www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak

12:30. Elkarriketap (Manu Etxezortu)

17:30. Gaurkoan Tolosaldeak

21:30. Gaurkoan Tolosaldeak

22:00. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa (Amasa-Villabona)

22:30. Zer jan

23:30. Gaurkoan Tolosaldeak



ataria
argazki lehiaketa

Udako
argazki lehiaketa

Igo hemen zure argazkia



Bi lagunentzako asteburu bateko egonaldia KURTZIA Landetxearen eskutik.

www.kurtzia.com 946840607 • 616945662 • Kurtziaga auzoa, 11 - 48288 ISPASTER (Bizkaia)

Epaimahaiaren saria



Lau lagunentzako bazkari bat Inazio Urruzola txakolindegian

inaziourruzola.eus • 658 734 471 | 605 758 572 Arana Bailara, 18, 20494 Alkiza

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



Zumardia elkarteak eskainitako bi neguko eski ikastaro zozkatuko dira.

<https://www.zumardia.eus/>
688 726 213 \ info@zumardia.eus

atarikide-en saria



Gipuzkoako

Bertsolari Txapelketa
2019

Irailak
21 17:00
Ordizia. Herri Antzokia

Beñat Lizaso Alberdi
Ainhoa Agirreazaldeggi Rekondo
Manex Mujika Amunarriz
Ane Zuazubiskar Iñarra
Aitor Urbietza Aizpurua
Asier Azpiroz Iztueta
Aurkezlea: Maddi Labaka Mayoz



Irailak
22 17:00
Zumaia. Aita Mari Zinema

Ander Lizarralde Jimeno
Gorka Maiz Alustiza
Beñat Jauregi Etxeberria
Jokin Bergara Eguren
Unai Muñoa Amundarain
Iñigo Gorostazu Etxebeste
Aurkezlea: Saroi Jauregi Aiestaran

